# 2015 MAPAMUNDISTAS



ANTIPOSTALES

**María Platero,** Las reglas de la naturaleza, 2013

2015

MAPAMUNDISTAS

ANTIPOSTALES

## SALA DE EXPOSICIONES
## Pamplona
## ERAKUSKETA-ARETOAK
## Iruña

### HORARIOS

**Desde el 1 de noviembre al 30 de abril**
**De martes a viernes: 18:00 - 20:30**
**Sábados: 12:00 - 14:00 y 18:00 - 20:30**
**Domingos y festivos: 12:00 - 14:00**

**Desde el 1 de mayo al 31 de octubre**
**De martes a viernes: 18:30 - 21:00**
**Sábados: 12:00 - 14:00 y 18:30 - 21:00**
**Domingos y festivos: 12:00 - 14:00**

### ORDUTEGIAK

**Azaroaren 1etik apirilaren 30era**
**Asteartetik ostiralera: 18:00 - 20:30**
**Larunbatetan: 12:00 - 14:00 eta 18:00 - 20:30**
**Igande eta jaiegunetan: 12:00 - 14:00**

**Maiatzaren 1etik urriaren 31ra**
**Asteartetik ostiralera: 18:30 - 21:00**
**Larunbatetan: 12:00 - 14:00 eta 18:30 - 21:00**
**Igande eta jaiegunetan: 12:00 - 14:00**


La asociación cultural caracola agradece a los artistas, a los patrocinadores y a los colaboradores que han hecho posible esta novena edición de MAPAMUNDISTAS.

La Caracola kultur elkarteak bere esker ona helarazten die MAPAMUNDITARRAK bederatzigarren edizioaren babesleei eta laguntzaileei.

**Organizador/ Antolatzailea:**

**Patrocinadores oficiales / Babesle ofizialak:**

**Patrocinador de actividades / Jardueren babeslea:**

**Sedes exposiciones / Erakusketen egoitzak:**

**Patrocinadores / Babesleak:**

**Colaboradores / Laguntzaileak:**

Proyecto de interés social según la nueva Ley Foral de Mecenazgo Cultural (más información en www.mecna.es).
Gizarte-intereseko proiektua, Kultur Mezenasgoaren Foru Legearekin bat (argibide gehiago www.mecna.es webgunean).




MAPAMUNDISTAS empezó su andadura en 2007. Desde entonces, se han celebrado ocho ediciones en torno al territorio y al desplazamiento. El hilo de los tres primeros capítulos fue el viaje. El siguiente ciclo de cuatro años se dedicó a los lugares. Y el año pasado, con "*Las consecuencias del mapa*", se inició una reflexión sobre la representación del territorio que continúa en 2015 bajo el título de "*Antipostales*".

En cada edición hemos querido abrir ventanas a la creación en el ámbito del arte contemporáneo. Así, este año, hemos invitado a artistas que trabajan con archivos iconográficos, cuestionando la propia naturaleza de la imagen y su papel como autores y productores. Además, presentamos una instalación de arte sonoro que podrá experimentarse con los ojos cerrados.

Ahora nos parece esencial llegar a nuevos públicos. Estamos muy contentos de poder abrir las exposiciones en horario lectivo y de acompañar a grupos de escolares en su aproximación a las obras. Asimismo creemos que la participación en el proceso creativo contribuye a un mayor disfrute del arte. Con esta idea hemos organizado una jornada de arte postal y una acción artística in situ de la que el público formará parte.

Os esperamos.

MAPAMUNDITARRAK proiektua 2007an abiatu zen. Orduz geroztik, zortzi edizio egin dira, lurraldea eta joan-etorriak hizpide hartuta. Bidaia izan zen lehen hiru kapituluen haria. Lau urteko hurrengo zikloak Tokiak hartu zituen aztergai. Eta iaz, gogoeta bat abiatu zen lurraldearen irudikapenaz, *Maparen ondorioak* izenburuarekin, eta aurten jarraipena izan du gogoetak *Antipostalak* izenburupean.

Edizio orotan, gure asmoa izan da sormenari leihoak irekitzea arte garaikidearen esparruan. Horrela, artxibo ikonografikoekin lanean ari diren artistak gonbidatu ditugu aurten, betiere kolokan jarrita irudiaren izaera bera eta artistek egile eta ekoizle gisara duten zeregina. Horrez gain, arte soinuduneko instalazio bat aurkezten dugu, begiak itxita esperimentatzeko modukoa.

Funtsezkoa deritzogu orain publiko berrietara iristeari. Pozik gaude, oso, erakusketa-guneak eskola-orduetan irekita egonen direlako, eta horrela, aukera izanen dugu ikasleei laguntzeko artelanetara hurbildu daitezen. Halaber, uste osoa dugu sormen-prozesuan parte hartzeak handitzen duela artearekiko gozamena. Xede hori harturik, jardunaldi bat antolatu dugu, postalen arteari buruz,  bai eta arte-ekintza bat ere, bertan egitekoa, non jendeak parte hartzen ahalko baitu.

Zuen zain gaude.



MIQUELEIZ
-1944-

LIBROS
ANTIGÜEDADES
DECORACIÓN

Av. Roncesvalles, 11. Pamplona
948 220 083 / 655 446 017
antiguedadesmiqueleiz.com



## Antipostales

Las imágenes nos acompañan. Contienen y ocupan parte de nuestro tiempo. Son signos que nos sirven para interpretar la realidad y escribir nuestra historia individual y colectiva. En la actualidad todos somos productores y consumidores de imágenes. Millones de imágenes hechas por millones de personas están circulando en cada momento. Las hay buenas y malas, pero eso no importa demasiado, porque al parecer, todas tienen su función y su caducidad. Unas apenas duran segundos en nuestras mentes, se solapan, se autodestruyen. Otras dejan una huella, nos construyen y nos transforman. Lo comprobamos de cuando en cuando: una imagen nos detiene, nos conmueve. Sí, sigue habiendo imágenes que movilizan, que hacen política.

Así es como nos relacionamos con los lugares. Casi nunca llegamos a un lugar sin haber visto imagen ninguna. Antes del lugar existen las imágenes del lugar. La industria turística se ha encargado de fabricar imágenes para atraer a visitantes, destacando lo más amable o lo más exclusivo de cada sitio, transformando las ciudades, los valles y las costas en marcas. Hasta hace poco, la tarjeta postal era el objeto estrella del comercio del *souvenir*, un medio sencillo, barato y a todo color para hacer llegar el mensaje "estoy aquí" a familiares y amigos. Todos guardamos en un cajón una colección de postales de lugares lejanos como piezas de un puzzle incompleto. En su libro "Contra el mapa", la historiadora del arte Estrella de Diego definía de este modo la función de la tarjeta postal: "en sus juegos de fragmentación, no divide sino que reúne, comprime, reduce, resume, escribe, dicta". Parece que la imagen de postal ha formado el gusto común, la idea del bello paisaje, sean las cimas nevadas en invierno o las vistas al mar con palmeras en verano, o al revés, quién sabe. Ahora que ya no se envían postales, los carteros habrán dejado de soñar.

Las imágenes preceden nuestra experiencia del lugar pero también perduran. Las fotografías que hicieron las generaciones pasadas alimentan archivos y mercadillos de pulgas. Son documentos de una época, de un lugar, de una técnica, un material valioso para coleccionistas e historiadores. Sin embargo, hoy en día, con el paso a la tecnología digital y la desmaterialización de la imagen, se desconoce cual será el paradero de nuestra producción visual en las próximas décadas.

En MAPAMUNDISTAS 2015 queremos examinar nuestra compleja relación con las imágenes del paisaje en este momento de cambio de hábitos. Los artistas que participan en esta novena edición se sumergen constantemente en la gran producción humana de imágenes y datos, revisan archivos analógicos y digitales para analizar, con la necesaria distancia y con una buena dosis de humor, nuestro desenfrenado impulso por rodearnos de imágenes. Algunos son clientes habituales de los mercadillos de las pulgas (documentation céline duval, Raúl Lázaro, Alberto Odériz y Oriol Vilanova). Amontonan y archivan postales, revistas o fotografías anónimas con la voluntad de revisitar la historia de la fotografía, de examinar cómo funcionan las imágenes y cómo nos unen al mundo. Abordan el propio acto de mirar, esta ocupación tan profundamente humana, sea mirar el paisaje o las imágenes del paisaje, su representación. Identifican los estereotipos, esas imágenes prefabricadas listas para el consumo que no albergan sorpresas. Pero también inventan nuevas narraciones al reciclar las imágenes, al unirlas con otras o simplemente al traerlas del pasado a nuestro momento presente. Por otra parte, hemos invitado a otros artistas que trabajan a partir de archivos digitales: imágenes producidas automáticamente por cámaras de vigilancia, imágenes creadas en Google Earth o grabaciones sonoras (Albert Gusi, Emilie Brout & Maxime Marion y Edu Comelles). Nos descubren nuevas aproximaciones al territorio a través de la tecnología, imágenes inéditas o campos inexplorados para los sentidos. Y por último, mostraremos la obra de fotógrafos que construyen imágenes interviniendo en el paisaje, introduciendo un elemento ajeno y poético en el entorno natural (María Platero y Albert Gusi). Iremos a tocar el agua del río Arga con Albert Gusi para hacer que el agua se convierta en escultura y después en imagen.

*Alexandra Baurès*
*Comisaria de las exposiciones*






## Antipostalak

Irudiak lagun ditugu. Gure denboraren puska bat hartu eta betetzen dute. Zeinuak dira, errealitatea interpretatzeko eta gure historia, banakakoa zein kolektiboa, idazteko erabilgarri. Egun, denok gara irudien sortzaileak eta kontsumitzaileak. Milioika irudi, milioika lagunek eginak, ari dira bueltaka munduan une orotan. Irudi onak daude, eta txarrak, baina horrek ez du gehiegi axola, denek bide dituztelako bere zeregina eta bere iraungipena. Batzuek segundo labur batzuk baino ez diraute geure buruetan, gainjartzen dira, autosuntsitzen dira. Beste batzuek, aldiz, eraikiarazten gaituzte, eta itxuraldatu. Noizbehinka egiaztatzen dugu: irudi batek geldiarazten gaitu, hunkitzen gaitu. Bai, irudi batzuek oraindik mugiarazten dute jendea, politika egiten dute.

Horrela, bada, egiten ditugu harremanak tokiekin. la Inoiz ez gara iristen inora aurrez bertako irudi bakar bat ere ikusi gabe. Tokia baino lehenago tokiko irudiak daude. Turismo-industria arduratu da irudiak egiteaz bisitariak erakartze aldera, toki bakoitzeko atseginena eta bereziena azpimarratuz, hiriak marka bihurtuz, eta ibarrak eta kostaldeak. Duela gutxira arte, postalak *souvenir*-salmentaren jomuga nagusia ziren, bide xume, merke eta kolorez beterikoa, “hemen nago” mezua helarazteko, senideei eta lagunei. Denok dugu gordeta, kaxoi batean, toki urrunetako postal-bilduma bat, osatu gabeko puzzle baten piezak bailiran. Contra el mapa liburuan honela definitzen zuen postalaren eginkizuna Estrella de Diego arte-historialariak: “zatiketa-jolasetan, ez du zatitzen, kontrara, bildu egiten du, trinkotu, txikitu, laburtu, idatzi, diktatu”. Lirudike postalaren irudiak zizelkatu duela denon gustua, paisaia ederraren ideia, dela gailur elurtuena neguan, dela itsasorako palmondodun bistak udan, edo alderantziz, batek daki. Orain, postalak, jada, igortzen ez direla, postariek utziko zioten amets egiteari.

Irudiak tokian izanen dugun esperientziaren aurrekoak izaten dira, baina iraun egiten dute. Aurreko belaunaldiek egindako argazkiek elikatzen dituzte artxiboak eta azoka txikiak. Garai bateko agiriak dira, toki batekoak, teknika jakin batekoak, material baliotsua, bildumazaleentzat eta historialarientzat. Hala ere, egun, teknologia digitala eta irudiaren desmaterializazioa iritsi direlarik, ezin jakin zein izanen den gure ikusizko ekoizpenaren patua datozen hamarkadetan.

MAPAMUNDITARRAK 2015 ekimenean, aztergai jarri nahi dugu paisaia-irudiekin dugun harreman konplexua, orain azturak aldatzen ari garen une honetan. Bederatzigarren edizio honetan parte hartzen duten artistak etengabe ari dira murgiltzen irudi eta datuen giza ekoizpen erraldoian; artxibo analogikoak eta digitalak ikerbide hartu eta, behar den distantziatik zein umore apur batez helduta, aztertzen dute irudiz inguratzeko dugun bultzada neurrigabea. Artista horietako batzuk ohiko bezeroak izaten dira azoka txikietan, hala nola Céline Duval, Raúl Lázaro, Alberto Odériz eta Oriol Vilanova. Postalak, aldizkariak, argazki anonimoak.. pilatu eta artxibatzen dituzte, argazkilaritzaren historiari berriz ere bisita egiteko eta aztertzeko zer funtzio duten irudiek eta nola lotzen gaituzten mundura. Begiratzeko ekintzari berari heltzen diote, hain gizakiona den zeregin horri, dela paisaiari, dela paisaiaren irudiei –paisaiaren irudikapenari–begiratzekoa. Estereotipoak identifikatzen dituzte, ustekaberik bildu ez eta kontsumorako prest dauden irudi aurrefabrikatu horiek. Baina narrazio berriak ere sortzen dituzte, irudiak birziklatzean, elkarrekin lotzean edo, besterik gabe, iraganetik gaur egunera ekartzean. Artxibo digitalak erabilita –zaintza-kamerek automatikoki hartutako irudiak, Google Earth-en sortutakoak, soinu-grabazioak– lanean aritzen diren beste artista batzuk ere gonbidatu ditugu, hala nola Albert Gusi, Emilie Brout & Maxime Marion eta Edu Comelles. Lurralderako hurbilketa berriak helarazten dizkigute, baliabide batzuen bidez: teknologia, irudi ezezagunak edo zentzumenek jorratu ez dituzten eremuak. Eta azkenik, argazkilari batzuen lana erakutsiko dugu, hala nola María Platero eta Albert Gusirena, zeinek paisaian esku hartuta, naturaren ingurunean berezko ez den osagai poetiko bat txertatu eta irudiak eraikitzen baitituzte. Arga ibaira joanen gara Albert Gusirekin batera, ura eskultura bihur dadin, lehenbizi, eta irudi, gero.

*Alexandra Baurès*
*Erakusketen komisarioa*

# calendario

# egutegiak

| FECHAS & HORARIOS | LUGAR | EXPOSICIÓN | DATAK / ORDUTEGIAK | LEKUAK | ERAKUSKETA |
|---|---|---|---|---|---|
| **30 oct.- 11 dic. 2015**<br>De lunes a viernes, de 9 a 21 h. | Universidad Pública de Navarra,<br>Aulario, Pamplona | *Geografía ilustrada* de **Alberto Odériz**<br>*Las reglas de la naturaleza* de **María Platero** | **Urriak 30 – Abenduak 11**<br>Astelehenetik ostiralera (9:00 – 21:00) | Nafarroako Unibertsitate Publikoa,<br>Ikasgelategia (Iruña) | *Geografia irudiduna*. **Alberto Odériz**<br>*Naturaren arauak*. **María Platero** |
| **6 nov.- 6 dic. 2015**<br>De martes a viernes, de 18 a 20.30 h. Sábados de 12 a 14 h y de 18 a 20.30 h. Domingos y festivos, de 12 a 14 h. | Ciudadela,<br>Sala de Armas, 1ª planta, Pamplona | *Impresiones paisajes* de **documentation céline duval**<br>*Sunsets from...* de **Oriol Vilanova**<br>*Intrusos* de **Albert Gusi**<br>*Paisajes imposibles* de **Edu Comelles**<br>*Google Earth Movies* de **Emilie Brout & Maxime Marion** | **Azaroak 6 – Abenduak 6**<br>Asteartetik ostiralera (18:00 – 20:30), larunbatetan (12:00 – 14:00 eta 18:00 – 20:30), eta igande eta jaiegunetan (12:00 – 14:00) | Armen Aretoko lehen solairua,<br>Ziudadela (Iruña) | *Paisaia-irudipenak*. **Documentation céline duval**<br>*Sunsets from...* **Oriol Vilanova**<br>*Arrotzak*. **Albert Gusi**<br>*Paisaia ezinezkoak*. **Edu Comelles**<br>*Google Earth Movies*. **Emilie Brout & Maxime Marion** |
| **22 nov. 2015 - 10 enero. 2016**<br>Sábados, domingos y festivos, de 11 a 14 h. | Batán, Villava | *Excursiones imprevistas* de **Raúl Lázaro** | **Azaroak 21 – Abenduak 11**<br>Larunbat, igande eta jaiegunetan (11:00 – 14:00) | Bolategia (Atarrabia) | *Ustekabeko txangoak*. **Raúl Lázaro** |

| FECHAS & HORARIOS | LUGAR | PROYECCIÓN | DATAK / ORDUTEGIAK | LEKUAK | FILMA |
|---|---|---|---|---|---|
| **Lunes 9 nov., 19.30** | Civivox Iturrama, Pamplona | ***Pierrot le fou***<br>(Pierrot el loco) de Jean-Luc Godard | **Azaroak 9, astelehena. 19:30** | Iturramako Civivoxa (Iruña) | ***Pierrot le fou***<br>(Pierrot eroa) de Jean-Luc Godard |
| **Miércoles 11 nov., 19.30 h** | Civivox Iturrama, Pamplona | ***Les contes de la nuit***<br>(Los cuentos de la noche) de Michel Ocelot | **Azaroak 11, asteazkena. 19:30** | Iturramako Civivoxa (Iruña) | ***Les contes de la nuit***<br>(Gaueko ipuinak) Michel Ocelot |
| **Lunes 16 nov., 19.30 h** | Civivox Iturrama, Pamplona | ***Une jeunesse amoureuse***<br>(Una juventud amorosa) de François Caillat | **Azaroak 16, astelehena. 19:30** | Iturramako Civivoxa (Iruña) | ***Une jeunesse amoureuse***<br>(Gazteria maitagarri hori) François Caillat |
| **Lunes 23 nov., 19.30 h** | Civivox Iturrama, Pamplona | ***Fragments d'une révolution***<br>(Fragmentos de una revolución) de Anonyme (Anónimo) | **Azaroak 23, astelehena. 19:30** | Iturramako Civivoxa (Iruña) | ***Fragments d'une révolution***<br>(Iraultza baten pasarteak) Anonyme (Anonimoa) |

| FECHAS & HORARIOS | LUGAR | ACTIVIDAD | DATAK / ORDUTEGIAK | LEKUAK | JARDUERA |
|---|---|---|---|---|---|
| **Viernes 6 nov., 20.30 h** | Ciudadela,<br>Sala de Armas, 1ª planta, Pamplona | Concierto de **Edu Comelles**, inauguración MAPAMUNDISTAS 2015. | **Azaroak 6, ostirala. 20:30** | Armen Aretoko lehen solairua,<br>Ziudadela (Iruña) | **Edu Comelles**-en kontzertua. MAPAMUNDITARRAK 2015 erakusketaren inaugurazioa. |
| **Domingo 8 nov., 12 h** | Ciudadela,<br>Sala de Armas, 1ª planta, Pamplona | Visita guiada a la exposición por la comisaria. | **Azaroak 8, igandea. 12:00** | Armen Aretoko lehen solairua,<br>Ziudadela (Iruña) | Komisariak gidatutako bisita erakusketara |
| **Viernes 13 nov., 18.30 h** | Civivox Condestable,<br>Sala de conferencias, Pamplona | Intervención artística participativa de **Albert Gusi**, *El Arga en tus manos*. | **Azaroak 13, ostirala. 18:30** | Kondestablearen Jauregiko<br>Hitzaldi-aretoa, Iruña | *Arga zure eskuetan*, esku-hartze artistiko partizipatiboa. Egilea: **Albert Gusi**. |
| **Sábado 14 nov., 12 h** | Plaza del castillo, Pamplona | Intervención artística participativa de **Albert Gusi**, *El Arga en tus manos*. | **Azaroak 14, larunbata. 12:00** | Gazteluko plaza (Iruña) | *Arga zure eskuetan*, esku-hartze artistiko partizipatiboa. Egilea: **Albert Gusi**. |
| **Martes 17 nov., 18.30 h** | Mediateca, Biarritz | Charla entre **documentation céline duval** y **Éric Rondepierre**. | **Azaroak 17, asteartea. 18:30** | Mediateca, Biarritz | Hitzaldia: **documentation céline duval** eta **Éric Rondepierre**. |
| **Sábado 21 nov.**<br>De 11 a 13 h: taller infantil<br>De 16.30 a 20.30 h: adultos | Batán, Villava | Jornada de arte postal impartida por **Raúl Lázaro** y **Aniana Escosura**. | **Azaroak 21, larunbata**<br>11:00 –13:00: haur-lantegia<br>16:30 – 20:30: helduen lantegia | Bolategia (Atarrabia) | Postal-arteari buruzko jardunaldia **Raúl Lázaro** eta **Aniana Escosura**ren eskutik. |
| **Domingo 22 nov., 12 h** | Batán, Villava | Visita guiada a la exposición por **Raúl Lázaro.** | **Azaroak 22, igandea. 12:00** | Bolategia (Atarrabia) | **Raúl Lázaro**k gidatutako bisita erakusketara. |
| **Jueves 26 nov., 18.30 h** | Universidad Pública de Navarra,<br>Aulario, Pamplona | Visita guiada a la exposición por la comisaria. | **Azaroak 26, osteguna. 18:30** | Nafarroako Unibertsitate Publikoa,<br>Ikasgelategia (Iruña) | Komisariak gidatutako bisita erakusketara |



Alberto Odériz, **Geografía Ilustrada, 2012 -2014**







***ALBERTO ODÉRIZ***
***Pamplona, 1983***

Vive y trabaja entre Ciudad de México y Pamplona.
***www.albertoderiz.com***

Alberto Odériz es arquitecto y artista, a la vez y por separado. Observa e interviene en el espacio, dentro y fuera del taller. Hay un tema recurrente en sus proyectos: el paso de la segunda a la tercera dimensión, del plano al espacio y viceversa. Para ello utiliza disciplinas como el dibujo, el collage, la pintura o la escultura. En el ámbito de la arquitectura, lo que más valora es que la usen las personas, como en su instalación *Un Zócalo*, un ágora de ladrillo que estuvo en la Plaza de la Constitución de México DF (2014).

## Geografía ilustrada

Este trabajo es una serie de collages sobre las revistas *Geografía Universal Ilustrada* (1971), en los números dedicados a Italia y Croacia, y *México Desconocido* (1981), número 55. Estas publicaciones enciclopédicas presentaban mapas, fotografías panorámicas e imágenes de detalles del paisaje y del entorno urbano. Alberto Odériz introduce en la imagen figuras geométricas en color que realzan las características del paisaje. Sin embargo, al añadir una forma tan rotunda en primer plano, se produce un singular efecto: la creación de un espacio dentro de la imagen, que transforma drásticamente el punto de vista.



***ALBERTO ODÉRIZ***
***Iruña, 1983***

Mexiko hirian eta Iruñean bizi da eta lan egiten du.
***www.albertoderiz.com***

Arkitektoa eta artista da, biak aldi berean eta bereiz. Espazioa behartzen du, eta hartan esku hartu, lantegian bertan eta kanpoan. Haren proiektuetan gai bat agertzen da behin eta berriz: bigarren dimentsiotik hirugarrenera igarotzea, planotik espaziora eta alderantziz. Horretarako, diziplina batzuk erabiltzen ditu, hala nola marrazketa, collagea, pintura edota eskultura. Arkitekturari dagokionez, jendearen erabilera da artistak gehien balioesten duena; hala gertatzen da, konparazio baterako, Mexiko DF-ko Konstituzio plazan 2014an ezarri zuen *Un Zócalo* izenburua zuen adreiluzko agora-instalazioarekin.

## Geografia irudiduna

Lan hau collage-sorta bat da, Italiari eta Kroaziari eskainitako *Geografía Universal Ilustrada* (1971) aldizkarien zenbakietatik eta *México Desconocido* (55. zk., 1981) izenburukotik ateratako irudiekin osatua. Entziklopedia-argitalpen horietan, besteak beste, paisaiako eta hiri-inguruneko mapak, argazki panoramikoak eta xehetasun-irudiak agertzen ziren. Alberto Odérizek koloretako figura geometrikoak txertatu ditu irudietan, paisaien ezaugarrien indargarri. Alabaina, lehen planoan halako forma irmoa txertatuta, efektu berezi bat eragiten da: irudiaren barruan espazio bat sortzen da, ikuspuntua zeharo aldatzen duena.

María Platero, **Las reglas de la naturaleza 2013**










***MARÍA PLATERO***
***Madrid, 1976***

Vive y trabaja en Madrid.
***www.mariaplatero.com***

Las escenas fotográficas que compone María Platero tienen lugar en casas, oficinas, parques, etc. En esos escenarios pone en juego a personas que realizan una acción incongruente: desafían la ley de la gravedad, yacen en el suelo después de una caída programada, esconden la cabeza en un cajón o descansan sobre un lecho de libros. Después, en la imagen en color obtenida, detiene por un instante el movimiento de los cuerpos. Y, al fijar nuestra atención en la postura resultante, realza con humor la torpeza y la vulnerabilidad del ser humano en su entorno cotidiano.

## Las reglas de la naturaleza

En esta serie, María Platero realiza un pseudo experimento científico que consiste en medir la naturaleza con reglas escolares. Visita mares, bosques y montañas, provista de reglas de plástico de diversas formas y colores. En cada lugar, coloca el instrumento entre ella y el paisaje, y efectúa una suerte de collage en directo. La acción resulta tan poética como imposible. ¿Cuál es el tamaño de las nubes? Parece que el mundo está hecho a escala de nuestra mano, de nuestro cuerpo, que gira alrededor nuestro. Pero no nos engañemos. Las nubes pasan. Se nos escapan.

***MARÍA PLATERO***
***Madril, 1976***

Madrilen bizi da, eta bertan lan egiten du.
***www.mariaplatero.com***

María Platerok osatzen dituen argazki-eszenak etxeetan, bulegoetan, parkeetan, etab.ean eginak dira. Argazkien protagonistak ekintza burugabe bat egiten ari direla agertzen dira: grabitatearen legeari aurre egiten, aurretik programatutako eroriko baten ondoren lurrean etzanda, burua kaxoi batean ezkutatzen dutela, edo liburu-ohatze baten gainean atseden hartzen. Gerora, irudi bat sortzen du koloretan, non une batez gorputzen mugimendua gelditzen baitu. Eta gorputz-jarrerari erreparatuta, umorez azpimarratzen ditu gizakiaren baldartasuna eta ahultasuna haren eguneroko ingurunean.

## Naturaren arauak

Serie honetan, María Platerok pseudo-esperimentu zientifiko bat egiten du, natura eskolako erregelarekin neurtzeko. Itsasoak, basoak eta mendiak bisitatzen ditu, forma eta kolore ezberdinetako plastikozko erregelez horniturik. Leku bakoitzean, erregela jartzen du beraren eta paisaiaren artean, eta halako collage bat sortzen du zuzenean. Ekintza poetikoa bezain ezinezkoa da. Zein da hodeien tamaina? Badirudi mundua gure eskuaren, gure gorputzaren eskalara egina dagoela, gure inguruan biraka ari dela. Baina ez gaitezen engaina. Hodeiak igarotzen dira. Ihes egiten digute.

Raúl Lázaro, **Excursiones imprevistas, 2013**








***RAÚL LÁZARO***
***Alicante, 1980***

Vive y trabaja en Madrid.
Está representado por la galería 6mas1, Madrid.
***www.escueladecebras.com***

La palabra *collage* viene de *coller* (pegar en francés), de ahí que la técnica artística del *collage* se base en la utilización de papel, tijeras y pegamento. Raúl Lázaro es collagista, además de ilustrador y arquitecto de formación. Es decir, que maneja con la misma destreza las tijeras, el lápiz y el ratón. Recorta y recicla imágenes para construir paisajes en el plano de la hoja de papel, o desplegables en tres dimensiones. Y si otorga importancia a la materialidad de la imagen y a su textura, y si utiliza fotografías *vintage*, es para buscar cierto anacronismo y apelar nuestro imaginario personal.

## Excursiones imprevistas

Raúl Lázaro nos lleva de paseo por algunos de sus micro-paisajes. Elige los Alpes de las postales en blanco y negro como primer destino. En esta colección de collages, el cuerpo humano abraza el relieve como si fuera una maqueta de juguete. Así, al burlar las escalas, el artista hace visible el empeño del ser humano por adueñarse de su entorno. Después, en *Geografías a veces ni eso*, nos invita a descubrir paisajes inconclusos, combinaciones posibles hechas a partir de fragmentos de imágenes. Mientras en *Territorios plegados,* presenciamos pequeñas edificaciones. Ahí, cada volumen tiene su negativo por el recorte del papel. Esos vacíos representan la destrucción que precede a toda construcción.

***RAÚL LÁZARO***
***Alacant, 1980***

Madrilen bizi da, eta bertan lan egiten du.
6mas1 galeriak (Madril) ordezkatua da.
***www.escueladecebras.com***

*Collage* hitza *coller*-etik dator (itsatsi frantsesez), hortaz *collage* teknika artistikoaren oinarrian paperaren, guraizeen eta lekedaren erabilera dago. Raúl Lázaro collage-egileaz gain, ilustratzailea da, eta arkitektura ikasi du. Hau da, iaiotasun berberaz erabiltzen ditu guraizeak, arkatza eta sagua. Irudiak ebaki eta birziklatzen ditu, paisaiak eraikitzeko, paperezko orriaren planoan edo hiru dimentsiotan egindako orri tolesgarrietan. Garrantzia ematen badie irudiaren materialtasunari eta testurari, eta *vintage*-argazkirik erabiltzen badu, anakronismo-ikutu bat bilatzeko da, gure imajinarioari hel egin diezaiogun.

## Ustekabeko txangoak

Raúl Lázarok paseatzera garamatza, berak sortutako mikro-paisaietan barna. Txuri-beltzeko postaletako Alpeak aukeratu ditu, lehen jomuga gisara. Collage bilduma honetan, giza gorputzak erliebea besarkatzen du jolas-maketa bat bailitzan. Horrela, eskalei muzin eginda, artistak ikusgai jartzen du gizakiak inguruneaz jabetzeko daukan grina. Gero, *Geografíak, batzuetan, ezta hori ere*, lanean gonbit egiten digu paisaia bukatugabeak ezagutzeko, zeinak irudi-puskekin osatutako konbinazio posibleak baitira. *Lurralde tolestuak* lanean, eraikin txiki batzuk hauteman ditzakegu. Hor, bolumen bakoitzak bere negatiboa dauka, paperaren tolesdurak eragindakoa. Hutsuneek eraikuntza bakoitzaren aurreko eraispena irudikatzen dute.

documentation céline duval, **Points de vues, 2015.** Courtesy Semiose galerie, Paris







documentation céline duval, **Vu !, 2015.** Courtesy Semiose galerie, Paris

### *DOCUMENTATION CÉLINE DUVAL*
### *Saint-Germain-en-Laye, Francia, 1974*

Vive y trabaja en Houlgate, Normandía.
Está representada por la galería Semiose, Paris.

***www.doc-cd.net***

Hace dos décadas que documentation céline duval colecciona álbumes de familia, postales o imágenes recortadas en revistas, acumulando y clasificando miles de fotografías hechas por otros. No añade imágenes al mundo. Sitúa su quehacer artístico esencialmente en la edición, sacando la materia de su fondo fotográfico. Sus publicaciones o series pueden ser mínimas (con cuatro fotografías) o más extensas. Comparten una misma aproximación: deconstruir la imagen, confrontarla con otras imágenes, tendiendo puentes entre ellas y revelando lecturas en sus límites, donde acaba lo anecdótico y emerge lo humano.

## Impresiones paisajes

La artista rebusca en su colección de postales y propone diversas incursiones en torno a la imagen del paisaje. Selecciona algunos ejemplares, los fotografía de nuevo, cambiando el encuadre y el foco y potenciado algunos detalles. Así, en *¡Visto!*, desvela la mirada fortuita que cruza algún paseante con el fotógrafo, en medio de la muchedumbre. ¿Ser vistos o ver? Como contrapunto, en otra serie de postales, bancos situados en primer plano de la imagen nos invitan a la contemplación. Mientras, en la instalación *Horizontes IV,* nos sentaremos en un banco público para ver desfilar fotografías de personas que posan frente al mar.

### *DOCUMENTATION CÉLINE DUVAL*
### *Saint-Germain-en-Laye, Francia, 1974*

Houlgaten (Normandia) bizi da, eta bertan lan egiten du.
Semiose galeriak (Paris) ordezkatua da.

***www.doc-cd.net***

Bi hamarkada daramatza documentation céline duvalek bildumak osatzen familia-argazkiekin, postalekin, aldizkarietatik ebakitako irudiekin, eta bestek egindako milaka argazki sailkatzen. Ez du argazki berririk munduratzen. Bere jardun artistikoan edizioari heltzen dio bereziki, materia bere argazki-funtsetik ateratzen duela. Argitalpenak edo serieak oso-oso txikiak izan daitezke, lau argazkirenak, kasu, edo luzeagoak. Hurbiltzeko bidea berbera da kasu guztietan: irudia deseraiki eta beste irudi batzuekin alderatu, haien artean zubiak eginez eta haien mugak –non anekdotikoa amaitu eta gizatiarra agertzen den– berrinterpretatuz.

## Paisaia-irudipenak

Artistak bere postal-bilduma arakatu eta esku-hartze batzuk proposatzen ditu paisaiaren irudian. Aukeratutako ale batzuei berriz ere egiten die argazkia, enkoadraketa eta fokua aldaturik eta xehetasun batzuk indartuta. Horrela, *Ikusia!* lanean, ageriko uzten du paseatzaileren batek eta argazkilariak elkarri ustekabean eta jendetzaren erdian jaurtitzen dioten begirada. Ikusia izan edo ikusi? Kontrapuntu gisara, beste posta-serie batean, irudiaren lehen planoan kokatutako eserlekuek gonbit egiten digute kontenplaziora. Bitartean, *Zerumuga IV* instalazioan, eserleku publiko batean eseriko gara, itsaso aurrean posatzen ari diren pertsonen argazkiak desfilean ikusteko.

Oriol Vilanova, **Sunsets from… Cartes postales, 2014**
Installation view Centre d'édition contemporaine, Genève. Photo by Sandra Pointet







## ORIOL VILANOVA
**Manresa, 1980**

Vive y trabaja en Bruselas.
Está representado por la galería Parra & Romero, Madrid / Ibiza.

***www.oriol-vilanova.com***

